

DONOSTIA / Merkeago eta apaletan lekurik kendu gabe

"TXOLLO bat da". Beatriz De la Torre donostiarra hiriko liburutegietara sarri joaten da eta horrela deskribatzen du hiritarrek eskura daukaten katalogoa. "Etxean liburuak uzteko lekurik ez daukat; hona etorrita, ez ditut erosi behar, irakurri eta berriz ere hemengo apaletan geratzen dira", gaineratu du.

Asko irakurtzen du De la Torrek, ia astero joaten da beste liburu baten bila. "Normalean ostiraletan, nobedadeak ekartzen dituzten egunean", azaldu du. Lehenengo liburutegiko sarreran dauden apaletan begiratzen du, nobedade horien artean bere gustukorik dagoen edo ez ikusteko: "Azkenaldian, adibidez, nobela historikoak baino ez daudela ematen du eta horietako batzuk irakurri ondoren, bestelakorik topatzea zaila izaten da!"

Gehienetan Alderdi Ederreko liburutegi nagusira jotzen du liburu gehiagoren bila, gertu daukalako, eta jasotzen duen zerbitzuarekin oso pozik dagoela dio. "Ordaindu beharko banu ere ondo irudituko litzaidake, prezio sinboliko bat jarriko balute, esan nahi dut", proposatu du De la Torrek. Dirua jokoan sartuz gero, jendeak liburuak hobeto zainduko lituzkeela uste du.

Izan ere, erabiltzaile gehienek ustetan diru kontuak dira liburutegien abantaila nagusia. Isabel Egañaren iritzia da hori, adibidez. Liburuak ez ezik, aldizkariak ere irakurtzera joaten da noiz edo noiz liburutegietara. "Batzuetan Alderdi Ederrera etortzen naiz, beste batzuetan Artzain Onaren atzean dagoen Koldo Mitxelena kulturunera", azaldu du. Ahal duenean, tarte bat hartzen du liburutegian bertan hainbat alorretan espezializatutako hilabetekariak irakur-tzeko eta, besteetan, liburuak etxera eramaten ditu.

Gainera, Donostian aurki dezakeen eskaintza "egokia" dela uste du, "liburu berri batzuk falta badira ere, badago non aukeratu", aipatu du Egañak. "Jasotzen dudak zerbitzuarekin ere gustura nago". Mari Carmen Magallán Alderdi Ederreko beste erabiltzaileetako bat da. Bere esanetan, etxean ere ez du liburu gehiagorentzako lekurik eta horregatik hasi zen liburutegietara joaten material berriaren bila, liburu dendetara baino sarriago.

Zahar eta gazte

Bai Egaña eta baita De la Torre eta Magallán ere emakume helduak badira ere, liburutegian bertan dauden mahai eta aulkietan egoten diren erabiltzaile gehienak gazteak eta hirugarren adinekoak dira.

Lehenak, ikasten aritzen dira mailegurako materiala bilatzen baino gehiago (berezi azterketen garaietan). Edo, Deian Neric gaztearen kasuan bezala,

musika bila joaten dira. Nahiz eta erabilgarri dauden liburuen zerrenda Cd-en eskaintza baino dezente luzeagoa izan, Neric-ek "musika ona" aurkitzeko problemarik ez daukala dio. Gainera, bidaiei buruz hitz egiten duten liburu eta aldizkariak begiratzeko ere aprobetxatzen du liburutegira bisita.

Ordenagailuetan ere sarri izaten dira gazteak, Interneten kontsultatzen edo posta elektronikoak bidaltzen.

Bestalde, hiriko liburutegietako eta kultur etxeetako besaulkietan nagusiak ikustea ohikoa izaten da. Egunkariak edo bestelako aldizkari eta liburuak irakurtzera joan ohi dira, goiz pasa gehienetan. Denbora librearen soberan izan eta hau irakurtzen pasatzen duten donostiarrak asko dira. Lasaitasuna aurkitzen dute liburutegietan, irakurtzeko materiala soberan dute eta egunetik egunera lagun taldeak osatu ere osatzen dituzte normalean.